

HIZKUNTZA PROIEKTUA

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------------------------|-----------|
| 1. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK | <u>2</u> |
| 2. HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EGITASMOA | <u>4</u> |
| 3. EZAUGARRI BALDINTZATZAILEAK | <u>5</u> |
| 4. HIZKUNTZARI BURUZKO IKUSPEGIA | <u>13</u> |
| 5. HIZKUNTZEN ERABILERA IKASTOLAN | <u>14</u> |
| 6. HIZKUNTZAK ETA KULTURA TRASMISIOA | <u>18</u> |
| 7. EUSKERA ARLOA SENDOTZEN | <u>20</u> |
| 8. ONDORIO NAGUSIAK | <u>21</u> |

H I Z K U N T Z A P R O I E K T U A

1. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

1.1 DEFINIZIOA.

Curriculumeko hizkuntzen trataera arautzeko, planifikatzeko eta modu koherente eta koordinatuan garatzeko, zehaztu diren irizpideen multzoa da. Irizpide hauek aurrera eramateko, ezinbestekoak dira, Ikastolako hezkuntza eta hizkuntza helburuak eta baita inguruko egoera soziolinguistikoa.

1.2 EZAUGARRI NAGUSIAK.

Gure Ikastolako hizkuntza proiektuak, hezkuntza proiektuarekin lotura zuzena duenez, hurrengo ezaugarriak izango ditu:

- LEGEZKOTASUNA.
- EGONKORTASUNA.
- KOHERENTZIA.
- INTEGRALA ETA BATERATZAILEA.
- PARTEHARTZAILEA ETA INDAR BILTZAILEA.

LEGEZKOTASUNA.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokion hezkuntza sistemak zehazten duen hizkuntzekiko marko legegilea kontutan hartuko dugu.

EGONKORTASUNA.

Ikasleen ikas-irakaskuntza prozesuak jarraipen bat izan dezan, proiektuan jasotako oinarritzko printzipio eta edukiek gutxienezko iraupena bermatu behar dute.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

KOHERENTZIA.

Gure Ikastolak hezkuntza proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko egokitasuna izango du, aldi berean kokaturik dagoen errealitate soziolinguistikoari eta onartutako ardatz metodologikoari egokituko zaizkio.

INTEGRALA ETA LOTESLEA.

Hizkuntza proiektuak Ikastola osatzen duen hezkuntza komunitate osoan du eragina, beraz jasotako erabakiek hezkuntza komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte.

PARTE HARTZAILEA ETA INDARBILTZAILEA.

Hizkuntza proiektuko ekimenak eta printzipioak guztion parte hartze eta iritziekin lorturikoak direla jakinik, eragile dinamizatzaileak izango dira Ikastolako eguneroko bizitzan.

2. HIZKUNTZA PROIEKTOAREN EGITASMOA

Erabaki ugari hartu dira azken urteotan hizkuntzen inguruan gure Ikastolan. Gaztelaniaren sarrera LH 1. ziklora aurreratzea adibidez, edota astero hiru ordurekin indartzea. Gizartean beharizan sozial berriak ere sortu dira eta gure Ikastolan eragina izan dituztenak, adibidez heziketa eleaniztasunaren proiektua.

Eleaniztasuna helburutzat hartuz erabaki batzuk hartu ditugu azken ikasturteetan:

- Ingelesaren sarrera goiztiarra : HH 1ean ordu bete astero.
HH 2n ordu eta erdi astero.
HH 3n 3 ordu astero.
- LHko lehenengo mailatik DBH 4 mailara arte ingeleseko 3 ordu astero.
- LHko lehenengo eta bigarren zikloan Science bi ordu ematen dira astero.
- DBHko lehenengo mailatik laugarren mailara arte Gizarte arloko programazioaren % 50a ingelesez ematen da.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

Honez gain, euskararen erabilpenaren murriztasuna gero eta handiagoa izanik, gure Ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bilduko dituen eta haien trataerari koherentzia emango dion HIZKUNTZA PROIEKTUA sortzea erabaki da.

3 EZAUGARRI BALDINTZATZAILEAK

Atal honetan, hizkuntzen trataera baldintzatzen duten ezaugarrien identifikazioa egiteko hurrengo atalak aipatuko ditugu:

- 3.1-LEGEDIA.
- 3.2-EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA.
- 3.3-IKASTOLAREN IDENTITATEA.
- 3.4-IKASTOLAREN ERREALITATEA.
- 3.5-ERABAKI NAGUSIAK.

3.1 LEGEDIA.

Hizkuntza eta hezkuntza plangintza baldintzatzen duten oinarri juridikoen erreferentziak aipatuko ditugu:

3.1.1 NAZIOARTEKO MARKOA.

- (AZTERTU IKASTOLA ELKARTEKOA).

3.1.2 ESPAINIAR ESTATUKO MARKOA.

- Espainiako Konstituzioa, 1978. Art. 3.
- Haur Hezkuntza (1333/1991 Errege Dekretua irailaren 6koa, BOE 9.9.91).
- Lehen Hezkuntza (1344/1991 Errege Dekretua irailaren 6koa, BOE 13.9.91).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1345/1991 Errege Dekretua irailaren 6koa BOE 13.9.91).

HIZKUNTZA PROIEKTUA

3.1.3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MARKOA.

- Gernikako Estatua, 1979. Art 6.16.
- Hezkuntza eta Kultura Sailaren Agindua, 1983eko abuztuaren 1ekoa.

3.2 EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA.

Atal honetan hurrengo irizpide hauek kontutan izango ditugu:

3.2.1 IKASTOLAREN KOKAPENA.

Gure Ikastola Bilboko Uribarri auzoan kokatuta dago. Bertako biztanlegoa erdalduna da nahiz eta euskararen erabilpenak azken urteetan bultzakada bat bizi izan duen.

3.2.2 GURASOEN HIZKUNTZA TIPOLOGIA (ATAL HAU NORMALKUNTZA PROIEKTUEN DATUAK JASO OSTEAN EGUNERATUKO DA).

Matrikulatzen diren ikasleen guraso euskaldunen kopurua gutxitzen joan da era nabarian azken ikasturteetan. 2004-2005 ikasturtean eta tutoreei pasatu zaien galdeketa bat egin ondoren lortu diren emaitzak hauek dira:

| ETAPA | Ikasle kopurua | Guraso euskaldunak duten ikasle kopurua |
|-------|----------------|---|
| HH | 172 | 7 |
| LH | 286 | 35 |
| DBH | 188 | 21 |

286 ikasletik 35 ikaslek bakarrik dute ama eta aita euskaldunak eta euskara da beraien ama hizkuntza.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

Bestalde, badago ama edo aita euskaldunak dituzten ikasleak:

| ETAPAK | Ikasle kopurua | Aita euskalduna | Ama euskalduna | Orokorrean ama edo aita euskalduna |
|--------|----------------|-----------------|----------------|------------------------------------|
| HH | 172 | 23 | 23 | 46 |
| LH | 286 | 68 | 53 | 121 |
| DBH | 188 | 27 | 40 | 67 |

Datu hauek aurrean izanik gogoeta txiki bat egitea beharrezkoa ikusten dugu. Gurasoak jakitun egon behar dira beraien seme-alabak euskaraz ikasteak konpromezu bat eskatzen diela. Batez ere, gurasoak lagungarri izan daitezkeela beraien seme-alaben ikasketa prozesuan. Mesedegarri gerta daiteke euskararekiko motibazioa, hau da: euskara ikasteko prest egotea edo gizarteak eskaintzen duen beste edozein baliabide erabiltzeko.

3.2.3. IKASTOLAREN IDENTITATEA.

ELIZBARRUTIKO IKASTETXEA.

Bilboko Elizbarrutiak sustatua, Herri Administrazioaren aurrean Irakaskuntzaren Gotzain Ordezkaritzak daukalarik.

Haur, Lehenengo eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osotasunean euskaraz ematen ditu (D eredua)

Familia askok adierazten duten kristau hezkuntzaren nahia betetzen du, dena den guztientzat zabalik dago.

GIZARTE-KULTUR INGURUNEAN BERTAKOTUA.

Euskal herriaren kultur errealitatea eta ohiturak kontuan hartuz, hezkuntza eginkizunak garatzen ditu. Hau dela eta, Olentzaro, Santa Ageda... jai tradizionalei begi emango diegu, baita Curriculumean agertu beharreko jakingaiei ere (Euskal Herriko historia, mitologia, kirola, musika etab.)

HIZKUNTZA PROIEKTUA

GIZAKIAREN ZERBITZURA.

Gure proiektuak ikaslea bere buruaren jabe, pertsona aske eta arduratsua izan dadin nahi du.

GIZARTEAREN ZERBITZURA.

Hezkuntza Komunitate hau osotzen dugunok, gizartearen aldaketa, gizabanakoaren oinarritzko eskubideen begirune eta sustapenaren ardura hartzen dugu.

GURE GARAICO KULTURAN ERROTUA.

Iraganeko kultur ondarea ahaztu gabe, kristau fedearen baloreetatik abiatuz, gure garaiko zein inguruneko kultur adierazpen desberdinen barrurapen sistematiko eta kritikoa eginez, hezteko asmoa dugu.

BALOREEN KOHERENTZIAN OINARRITUA.

Ikasleek bizitzan gero eta konpromezu gehiago har ditzaten, baloreetan oinarritutako hautapen libre eta arduratsuak egin ditzaten.

KRISTAU IKUSPEGITIK.

Gizabanako eta taldeko ardura bultzatzea, bai giza arazoez, bai erantzukizunez jabetzea gizarte justua lor dezagun.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

3.3. IKASTOLAREN ERREALITATEA.

3.3.1. IRAKASLEEN EUSKERA ERABILERA ETA KALITATEA.

D eredu bat izanik, euskara da gure Ikastolako hizkuntza, bai gela barruan bai beste edozein eremutan. Hala ere, gure ikastolaren errealitatea hau da:

Eskolatzen den ikasle gehiengoa erdalduna da eta kasu gehienetan ama hizkuntza menperatu gabe daukate. Egoera honek behartzen gaitu HHko 1. zikloan kurtso hasierako lehenengo hilabeteetan harremanetarako bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) paraleloki erabiltzen.

Euskararen kalitatea neurketa zehatz bat egitea oso zaila da baina aipagarria da azken urteetan irakasleentzat hizkuntzarekiko birziklatze ikastaroak antolatu direla.

3.3.2 IKASLE-IRAKASLE EUSKERA ERABILERA.

Ikasleekin harremanak izaterakoan gela barruko zein gela kanpoko eremuetan euskara erabiltzen da. Hala ere, kontuan izango dugu irakasleok une bakoitzean egiten dugun hizkuntza aukeraketa beraienez erabilera eredu dela, izan ere zenbaitentzat gu gara pertsona elebidun bakarrak.

3.3.3 H1 BARNERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEAK.

H1 barneratzeko zailtasunak agertzen diren momentuan laguntza gelak hizkuntza indartze egitasmo bat aurrera eramaten du. Egitasmo hau nahikoa ez denean gurasoei bere seme-alaba beste eredu bateko ikastetxe batean matriculatzea aholkatzen zaie.


HIZKUNTZA PROIEKTUA

3.4 HIZKUNTZEN INGURUAN HARTUTAKO ERABAKI NAGUSIAK.

Gure ikastolan hartutako erabaki nagusiak atzeriko hizkuntzarekin lotuta daude. Ingelesa indartzeko asmoz eta aniztasunaren bidean aldaketa ugari egon dira arlo honetan.

EUSKERA

Ez da aldaketarik egon azken ikasturteetan.




GAZTELANIA

- 2003-04 ikasturtean gaztelania arloa sendotzeko asmoz LH 1. ko zikloan astero 1. mailan 2,5 ordu ezarri ziren eta 2. mailan 3 ordu.
- 2004-05 ikasturtean berdin jarraitu genuen; hau da, 2,5 ordu astero irakasten ziren Gaztelania LH 1. mailan eta 3 ordu astero LH 2.mailan.
- 2006-07 ikasturtean gaztelania arloari 0,5 ordu gehitu zitzaion LH 1. mailan.
- 2007-08 ikasturtean LH 2.mailan ordu bat gehiago gehitu zitzaion gaztelania arloari.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

Grafikoa honen bidez argi ikusten da aldaketa:



INGELESA

- 1996-97 ikasturtean LH 1.zikloan ingelesa sartzea erabaki zen eta astero ordu 1ekin hasi ginen.
- 1997-98 Berdin jarraitu genuen. LH 1.mailan ordu bat astero irakasten zen ingelesa eta 2. mailan ere ordu bat astero.
- 1998-99 ikasturte honetan ingelesa bultzatzeko asmoz LHko 1, mailan astero ordu eta erdi hasi zen ingelesa irakasten.
- 1999-00 Nahiko emaitza onak ikusi zirenez, bai ikasle eta bai gurasoen aldetik ikasturte honetan LH 1. eta 2. mailetan ingelesa astero bi orduz irakastea erabaki zen.
- 2000-01 Ingelesaren sarrera goiztiarra jarri genuen eta HH2 eta HH3n astero ordu bat irakasten zen ingelesa.


H I Z K U N T Z A P R O I E K T U A

- 2001-02 HH 3n astero 1,5 ordu irakastea ingelesa erabaki zen.
- 2002-03 HH 2n ere astero 1,5 ordu ematea ingelesa ezarri zen.
 - Ikasturte honetan ez zegoen aldaketarik.
- 2004-05 Ingelesa sendotzen jarraitzeko asmoz aldaketa hauek hartu.
 - dira urte honetan:
 - HH 2 eta HH 3n astero 2 ordu ingelesa ematea.
 - LH 2. mailan ingelesa astero 3 ordurekin indartzea.
- 2005-06 Ikasturtean LH 3n Science irakasgaia ezarri zen astean 1, 5 ordu emanez. Halaber, plastika ezarri zen DBH1 mailan astean ordu bat ingelesez ematen. 2006-2007 ikasturtetik 2008-09 ikasturtera LH3 tik LH6 mailara arte era gradual batean zabaldu zen Scienceko irakasgaia. Bestalde, Plastikazko irakasgaia era berean zabaldu zen DBH 1ean eta DBH 2an 2010-2011 ikasturtera arte.
- 2009-2010 Ingelesa ezarri zen HH1.mailan astero ordu bat emanez.Horrez gain HH3.mailan ingeleseko asteko ordu kopurua 2,5 ordutara igo egin zen. Ikasturte honetan ere Scienceko ordu kopuruak 1,5 ordutik 2 ordutara igo egin zen LH3.mailatik LH 6.mailara arte. Bestalde, DBH 1.mailan dagoeneko Plastika ez zen ingelesez ematen eta horren ordeztu Gizarte irakasgaiko ordu bat ingelesez ematera igaro zen. Hau era gradual batean DBH4ra arte zabalduz.
- 2011-2012 ikasturtean HH3.mailan ingelesezko ordu kopuruak igo egin ziren 2,5 ordutik 3 ordutara.

Ondoren datorren grafikoaren bidez argi geratzen da ingelesak izan duen bultzakada gure ikastetxean.


HIZKUNTZA PROIEKTUA

FRANTSESA



- 1996-97 ikasturtean aukerazko arlo bezala sartu zen DBHn, eta astero ikasleek Frantses 2 ordu ematen dituzte DBH 2. 3. eta 4. mailetan.
- 2007-2008 ikasturtean DBH 4. mailan ordu bat gehiago sartu zen.
- 2011-2012. ikasturtean Frantseseko elkarizketarako laguntzailea zerbitzua ezarri zen. Horren ondorioz, DBH2n eta DBH3n talde bakoitzak hamabostero laguntzailearekin ordu bat ematen du eta DBH4. mailan 2 ordu, ahozotasuna lantzeko.

HIZKUNTZA PROIEKTUA



4 HIZKUNTZARI BURUZKO IKUSPEGIA

4.1 HIZKUNTZEN ZEHARKAKOTASUNA.

4.1.1 Eskola hizkuntza:

H1 EUSKERA curriculum akademikoaz gain beste arloetan pisua dauka euskaraz lantzen baitira.

H2 GAZTELANIA curriculum akademikoa.

H3 INGELESA curriculum akademikoa eta Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara Science astero bi ordu irakasten da.

Bigarren Hezkuntzan Gizarte Zientziak arloan programazioaren % 50-a ingelesez ematen da.

H4 FRANTSESA curriculum akademikoa.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

HIZKUNTZA BAKOITZARI DAGOKION ORDUTEGIA ETA ESPAZIO KOKAPENA.

| | EUSKERA H1 | GAZTELANIA H2 | INGELES H3 | FRANTSESA H4 | BESTE ARLOETAN EUSKERAREN ERABILERA | BESTE ARLOETAN INGELESARE N ERABILERA |
|-------|-------------------------|------------------|---------------|-----------------|--|--|
| HH | Gainontze ko guztiak | | HH 1, 2,3* | | 26 | |
| LH 1 | 7,5 ordu | 3 ordu | 3 ordu | | 14,5 13,5 | |
| LH 2 | 5 ordu | 4 ordu | 3 ordu | | 12,5 | 2 (Science) |
| LH 3 | 5 ordu | 4 ordu | 3 ordu | | 12,5 | Science 2 ordu |
| DBH 1 | 3 ordu | 4 ordu | 3 ordu | | 21 | Gizarte 1,5 |
| DBH 2 | 4 ordu | 4 ordu | 3 ordu | 2 ordu | 22 | Gizarte 1,5 |
| DBH 3 | 3 ordu | 3 ordu | 3 ordu | 2 ordu | 21 | Gizarte 1,5 |
| DBH 4 | 3 ordu | 3 ordu | 3 ordu | 3 ordu | 11 | Gizarte 1,5 |

- *HHn ingelesa HH 0. (30 minutu) HH 1. (ordu bat astero)HH 2.(ordu 2 astero)eta HH3.mailan(3 ordu astero) irakasten da.

4.2 HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA.

Hizkuntzen trataera bateratuaren metodologia gure metodologiaren barnean txertatuta dagoela ikusiz gero alde batera uztea adostu dugu.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

5 HIZKUNTZEN ERABILERA IKASTOLAN

5.1 IKASGELAZ BARNEKO KOMUNIKAZIO EREMUAK.

Gure ikastetxea ikastola bat dela kontuan izanik, gelaz barneko komunikazio eremuak euskaraz dira gaztelania arloan izan ezik.

Atzerritar diren hizkuntzen kasuan, ingelesa eta frantsesean, azalpenak hizkuntza hauetan gauzatzen dira mailaren arabera. Azalpen zehatzago bat behar izanez gero, euskaraz ematen da.

Beste aldetik, ingelesaren jabetza indartzeko asmoz, Lehen Hezkuntzako 2. Eta 3. Zikloetan Science arloa ingelesez lantzen da. DBHko etapan gizarte ikasgaiaren atal bat ingelesez lantzen da.

5.2 GELAZ KANPOKO KOMUNIKAZIO EREMUAK.

5.2.1 Jolastokia.

Ikasleek haien arteko komunikazioa jolastorduan euskaraz gauzatuko dute. Nahiz eta gaur egungo joera gaztelera hitz egitea izan.

5.2.2 Ibilaldiak.

Irizpidea berdina da: irakasle eta ikasleen arteko komunikazio hizkuntza euskara izango da. Hemen ere ikasleen arteko komunikazio hizkuntza gaztelera da, bereziki DBHn.

5.2.3 Jaialdiak.

Ikastolak eta gurasoek antolatutako jaialdien ekintzak euskaraz egingo dira, bai gonbidatuak, bai laguntzaileak euskaldunak izango direlarik eremu euskalduna bermatuz.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

5.3 ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK.

Ondoko ekintzetan arduradunak euskaldunak dira:

- Musika Hasiera – Pianoa.
- Antzerkia.
- Xakea.
- Kirol hastapena.
- Kirol anitza.
- Sasaki baloian bost arduradun.
- Atletismoan arduradun bat.
- UCMAS.
- Futbola.
- Euskal dantzak.

Hurrengo ekintzetan berriz arduradunak ez dira euskaldunak:

- Txikirritmo – ballet.
- Kitarra.
- Saskibaloiko bi arduradun.
- Atletismoko beste bi.
- Dantza modernoa.
- Ingelesa.
- Taekwondo.

5.4 IKASTOLAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

5.4.1 Autobusa:

Arduradun bat dago zerbitzu hau aurrera eramateko. Komunikazio hizkuntza nagusia euskara da.

5.4.2 Liburutegia:

Arduradun euskaldun bat dago.

5.4.3 Jantokia:

Zortzi langileekin kontaktzen da zerbitzu honetarako. Haietatik bat euskalduna delarik.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

5.5 PAISAIA LINGUISTIKOA.

5.5.1 Irakasleria:

Irakasleria guztia euskalduna da.

5.5.2 Ez-irakasleak:

Denetara hamahiru pertsonak osatzen dute. Hauetatik zazpi euskaldunak eta beste sei erdaldunak direlarik.

5.6 IKASTOLAKO DOKUMENTAZIOA.

Elebiduna da, bai gurasoei eta ikasleei zuzendutakoa zein Ikastolak gorde behar duen dokumentazioa.

5.7 PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK.

5.7.1. Langileriaren artean:

Langileri euskaldunaren artean euskara da erlazionatzeko hizkuntza.

5.7.2 Gurasoekin gauzatutako komunikazio desberdinak:

Idatzizko testuak bi hizkuntzetan bidaltzen dira. Jakinerazpen zehatza bada edota elkarrizketa, guraso euskaldunak badira, euskaraz egiten da komunikazioa.

5.7.3. Ekintza orokorrak:

- Ipuin lehiaketa.
- Bakearen Eguna.
- Irakurtxo Eguna.
- Hhko kurtso bukaerako ekitaldia.
- DBH 4. mailako ikasleen agurra.
- DBHko ikasleen komiki lehiaketa.
- DBHko ikasleen bertso txapelketa.
- Ekintza hauek gehi ikasleentzat antolatzen ditugun guztiak euskaraz gauzatuko dira.
- Udalekuak, ibilaldiak eta egonaldiak.

H I Z K U N T Z A P R O I E K T U A

6 HIZKUNTZAK ETA KULTURA TRASMISIOA

6.1 EKINTZAK:

6.1.1 OLENTZERO.

Ikastolako ikasle guztiek hartzen dute parte ekitaldi honetan. Etxetik baseritar jantziak ekartzen dituzte eta goiz erdian elkartzen dira ikastolako patioan pertsonai honen oroimenez kantatzen. Gero, auzotik zehar abesten joaten dira.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleengana Olentzero joaten da oparia emanaz gelaz gela.

6.1.2 AGATE DEUNA.

Ikastolako ikasle guztiek kantatzen dute, gero auzotik joaten dira dirua eske. Batzen den dirua anaitze proiektu bati eskaintzen zaio. Hemen ere euskal jantziak erabiltzen dituzte.

6.1.3 INAUTERIAK.

Haur Hezkuntzan gai bat aukeratzen da eta horren arabera mozorroak prestatzen dituzte. Haur Hezkuntzako ikasleek desfilea egiten dute beraien patioan.

Lehen Hezkuntzakoek (lehen ziklokoak izan ezik) Udaletxeak antolatutako ekitaldian hartzen dute parte. Ikasleek nahi duten mozorroa ekartzen dute.

DBHko ikasleek beraien aukeratutako mozorroa ekartzen dute jaia ospatzeko. Ikasleek desfilea eta lehiaketan parte hartzen dute.

6.1.4 BERTSOLARITZA.

Lehen Hezkuntzako 3. zikolan hasten da alor hau lantzen hilabeteko bi saio eskaintzen diotelarik. Azken urteotan irrati saio batera Bizkaia Irratira joaten dira haien lana erakutsiz, "Zortziko txikia" irratsaioan.

DBHn urtero bertsolaritza txapelketan ikasle guztiek parte hartzen dute. Patioan ekitaldi bat antolatzen da eta bertan irabazleek idatzitako bertsoak kantatzen dituzte. Bertsolariak ekartzen saiatzen gara sari banaketarako.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

6.1.5 KORRIKA.

Klase egunean baldin bada, ikasleek(HH eta LH) korrika txikin parte hartzen dute korrika dantza eta marrazkiak egiten.

DBHko ikasleei korrika nagusian parte har dezaten konbidatzen zaie eta baita ekitaldi honekin lotuta dauden ekintza desberdinetan.

6.1.6 ONDARE HISTORIKOA.

Bilboko Erdi Aroko ondare historikoa zaintzeko eta ezagutzeko asmoz, ikasleek proiektu batean parte hartzen dute.

DBH 1 eta 2 mailako ikasleek antzinako argazkiak ekartzen dituzte eta horrekin erakusketa bat antolatzen dugu ikastolan.

6.1.7 NAZIOARTEKO PROIEKTUAK.

Gure kulturaren oinarriak ezagutzera ematen zaizkie Europako eta Estatu Batuetako herrialdeei DBHko 3. Mailako ikasleek Frantziako ikastetxe batekin eskola trukea egiten dute. DBH 4. Mailakoek Chicagoko ikastetxe batekin.

6.1.8 BAKEAREN EGUNA.

Urtarrilaren 30an ikastolako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek antolatzen den ekitaldian parte hartzen dute.

6.1.9 EUSKARA EGUNA.

Abenduaren 3an ikastola mailan euskararekiko keinu bat egiteko asmoz, ekintza desberdinak antolatzen ditugu egun osoan zehar.

6.1.10 ANTZERKI TAILERRA.

6. mailako ikasleek aurrera eramango dute.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

6.2.PROPOSAMEN BERRIAK

6.2.1 EUSKAL ASTEAREN PROPOSAMENA.

6.2.2 EUSKARA TAILERRA.

Helburuak honako hauek dira: gure hizkuntzaren erabileraren hobekuntza, irakurle zaletasunean eragin positiboa izatea, gramatika eta lexikoa indartzea eta esperientziak ikastola mailan hedatzea.

6.2.3 PEN-FRIEND/ PEL-FRIEND.

6.2.4 JOLLY PHONICS.

Ingelesaren garrantziaz ohartuz eta gure ikasleen mintzamena zein irakurketa eta idazketa gaitasuna indartzeko asmoz, 2013/2014 ikasturtean Jolly Phonics metodoa martxan jarri da.

Jolly Phonics irakurketa eta idazketa lantzeko metodo sakona da. Metodo sintetikoa erabiltzen da ingelesezko kode alfabetikoaren soinua irakasteko, betiere modu dibertigarri, erakargarri eta zentzumen anitzeko esperientzia gisa. Ikasleek irakurtzen eta idazten ikasten dute hizki bakoitzaren soinua erabiliz.

7 EUSKARA ARLOA SENDOTZEN

Hurrengo ekintzak gauzatzen dira euskararen erabilera sendotzeko asmoz:

- 7.1 IRAKURTXO (LH 1. zikloa).
- 7.2 ZINEMARA IRTEERAK (LH eta DBH).
- 7.3 HHKO KURTSO AMAIERAKO EKITALDIA.
- 7.4 SUKARRIETARA EGINDAKO ASTE BETEKO EGONALDIA (LH 3. zikloa).
- 7.5 BERTSO EKITALDIA – IRRATSAIOA (LH 3. zikloa 6. maila).
- 7.6 BERTSO TXAPELKETA (DBH).
- 7.7 KOMIKI LEHIAKETA (DBH).
- 7.8 IPUIN LEHIAKETA (LH ETA DBH)
- 7.9 IPUIN KONTALARIAK (LH1. zikloa).
- 7.10 IPUIN KONTALARIAK (LH 2.zikloan euskaraz/ingelesez).
- 7.11 IDAZLEEKIN TOPAKETAK (LH eta DBH).
- 7.12 UDALEKUAK (LH).

HIZKUNTZA PROIEKTUA

8. ONDORIOAK

8.1

Hizkuntza Proiektu Integratuak, hizkuntzen trataera komunari dagokionez, euskal curriculumetik abiatuta eta berau ardatza hartuta, programaketen arteko teilkatzeak ekidin ahal izateko uztartutako programaketak zein estrategiak zehaztea eskatzen ditu. Horretarako, ikastolako hizkuntza guztiak bilduko dituen **Hizkuntzen Curriculum Integratua diseinatu beharko da**. Halaber, hizkuntzaren eskurapen prozesuen inguruan nola berau bideratu ahal izateko metodologiaren inguruko ikuskera komuna eskatzen ditu, bai eta helburu eta eduki osagarriak, materialak diseinatu edo/eta aukeratzeko orduan eta ebaluazioaren inguruko irizpide komunak ere. Hartara, hori lortzeko egitura, funtzionamendu, giza baliabide eta ekonomia baliabideen inguruan berariazko urratsak egin behar dira.

8.2

Euskal eskolen curriculum integratua eraikitzeko, berreskurapen eta integrazio kulturalaren ereduen arteko uztarketa egin beharko da, beraz, euskal kultura ardatza, horren inguruan ukipen kulturak, *curriculum* ofizialak, Europako kultura eta kultura unibertsala uztartu nola baita inmigranteen ukipen kulturak uztartzen dituen *curriculum* integratzailea gauzatu beharko da.

8.3

Hizkuntza Proiektua, lankidetzan jarduteko markoa. Hizkuntzaren garapen egokia ez da hizkuntza arloan ari direnen erantzukizuna soil-soilik, gainerako profesionalak ezinbestean kontuan hartu eta ikastolaren jarduera osoan kontuan hartu beharrekoa baizik. Hartara, Hizkuntza Proiektu integratuaren gauzatzeak hezkuntza komunitatea osatzen duten kideen artean oro har, profesionalen artean batez ere, alde bakarreko ekimenak ekidinez, lankidetzan jardutea eskatzen duen kontua da.

HIZKUNTZA PROIEKTUA

8.4

Askotariko eragileen arteko lankidetzarako markoa. Eleaniztasunari begira hezur mamitutako Hizkuntza Proiektuak, helburuak erabat lortu ahal izateko, lege babes egokia ez ezik, hezkuntza komunitatea kokatuta dagoen inguruan daukan eragile egitekoaz jabetzea eta eskola barruko nola baita eskolaz kanpoko euskararen normalizazioa bideratzeko asmoz ekimenak bideratzea ere eskatzen ditu, hartara, askotariko eragileekin lankidetzarako esparruak finkatuz eta berariazko egitasmoak abian jarritz.

(NORMALKUNTZA PROIEKTUA)

8.5

Eleaniztasuna bideratuko duen lege geriza. Eleaniztasuna lortzera begira dagoen Hizkuntza Proiektuak egun elebitasuna erdiestera bideratutako lege arauak gaindituz, euskara eta euskal *curriculumak* ardatza hartuta, eleaniztasuna bideratuko duen lege geriza egokia behar du. Hartara, berori lortu ahal izateko, hezkuntza taldeen arteko lankidetzara behar beharrezkoa da.

8.6

Azken urteotan ikastolak apustua egin du eleaniztasunaren alde. Horretarako proiektu ezberdinak martxan jarri dira: sarrera goiztiarra, elkar trukeak, elkarriketarako laguntzaileak hizkuntzak sendotzeko asmoz.

Ikastolako egoera soziolinguistikoa ikusita euskara erabilera sustatzeko komenigarria izango litzateke euskara beste esparru batzuetara zabaltzea.